

VII Tecnalía Kazetaritza Sariak

EXPANSIÓN, RNE, ETB ETA ELPERIODICO.COM-EN ZABALDUTAKO LAU LAN SARITU DITU TECNALIAK

Epaimahaiak aipamen berezia egin die Vocento, TVE, Radio Euskadi eta SINC agentzian argitaratutako lan batzuei

*Derion, 2015eko otsailaren 2an. Expansión*eko, Radio Nacional de Españako, ETBn ematen den Teknopolis saioa egiten duten Elhuyarko eta www.elperiodico.com-eko kazetari batzuek irabazi dituzte VII. Tecnalía Kazetaritza Sariak, eta aipamen berezia egin zaie Vocentoren *Innova+* gehigarriko, Radio Euskadiko, TVE La 2eko eta SINC agentziako zenbait kazetariri.

Gaur banatu dira VII. Tecnalía Kazetaritza Sariak (16.000 euro, guztira), AZTI-Tecnaliaren Derioko egoitzan (Bizkaia). Tecnalía Korporazio Teknologikoaren Javier Ormazabalek, Bittor Oroz eta Joseba Jauregizarrek, hau da lehendakari, lehendakariorde, eta zuzendari nagusia diranak, hitza hartu dute ekitaldian, eta Pedro Luis Uriarte “Economía, Empresa, Estrategia”ko lehendakari exekutiboa eta aldi berean sariaren epaimahailaren lehendakariak eman dio amaiera. Sari-banaketan parte hartu dute, halaber, haren laguntzaile diren Batz, Ikusi, Ingeteam eta Hiperbaric enpresetako zenbait karguk.

Tecnalía Kazetaritza Sariak lau kategoria ditu: idatzizko komunikabideak, irratia, telebista eta Internet. Lau mila euroko saria ematen zaio atal bakoitzari. Enpresa-, akademia-, teknologia- eta kazetaritza-munduan izena duten pertsonaz osatua dago epaimahaia, eta, VII. edizio honetan, lau sariak ematea ez ezik, lau aipamen berezi egitea erabaki du.

Idatzizko komunikabideen kategoriako saria

Idatzizko komunikabideen saria **Elena de Arrieta Palacio**rentzat izan da, *Nuevas tecnologías, la clave para redefinir la economía (Teknologia berriak, ekonomia birdefinitzeko gakoa)* erreportaje bikainagatik; *Expansión* ekonomiako

egunkarian argitaratu zen artikulua 2013ko maiatzaren 16an, eta han islatzen da Espainia digitalizatzeko langabezia-tasa handia txikitzen, lanpostu kualifikatuagoak sortzen eta eraginkortasuna eta produktibitatea handitzen lagunduko lukeela.

Irrati-kategoriako saria

Irrati-kategoriako saria Manuel Hernández Hurtadorentzat (**Manolo H.H.**) izan da, *I+D+i para el cambio de modelo productivo (I+G+Ba ekoizpen-eredua aldatzeko)* erreportajeagatik, 2013ko urriaren 24an RNEren *España Vuelta y Vuelta* programan emana; erreportajeak ohartarazten du Espainiak ekoizpen-eredua aldatu beharra daukela, eta balio erantsi handiagoa duen, lehiakorragoa den eta I+G+Ban oinarritua den batekin ordeztu beharra duela.

Telebista-kategoriako saria

Telebista-kategoriako saria **Elhuyarentzat** izan da, *Teknopolis* saioagatik; programa hori astero ematen da orain dela 15 urte baino gehiagotik, euskaraz ETB1en eta gaztelaniaz ETB2n, eta I+D+Ban egiten den lana gizarteratzen du, zorrotasun zientifiko osoz eta oso era dibulgatzailean.

Internet-kategoriako saria

Internet-kategoriako saria **Angelo Attanasio eta Jerónimo Giorgirentzat** izan da, *Derribando el muro digital (Horma digitala eraisten)* erreportajeagatik; www.elperiodico.com-en argitaratu zen 2014ko martxoaren 16an, eta hiru erreportaje osatutako kazetaritza-proiektu bat da, non kontatzen baitira Indian, Uruguain eta Egipton eten digitala murriztearen inguruko istorio sinbolikoak, *scrollytelling* formatu berritzailean.

Aipamen bereziak

Lau sari horiez gain, lau aipamen berezi ere egin ditu VII. Tecnalía Kazetaritza Sariako epaimahaiak.

Idatzizko komunikabideen kategoriako aipamen berezia

Antonio Villarrealentzat izan da, *Vinos con I+D en la sangre (Odolean I+Ga duten ardoak)* erreportajeagatik, Vocentoren *Innova+* gehigarrian argitaratua 2013ko urriaren 30ean; Espainiako lau ardogilek ardoaren tradizioari bizirik eusteko eta produktuaren bikaintasuna lortzeko lanetan azken teknologiekin izan dituzten esperientziak kontatzen dituzte.

Irrati-kategoriako aipamen berezia

Andrés Goñirentzat izan da, *Robótica para la Sanidad (Osasungintzako robotika)* erreportajeagatik, Radio Euskadiko *Graffiti* programan emana 2014ko maiatzaren 7an; Euskadin egiten diren gauzen adibide ona da, eta berrikuntzaren eta teknologiaren bidez aberastasuna eta lanpostuak sortzen laguntzen ari diren enpresa eta industrien adibide ona.

Telebista-kategoriako aipamen berezia

Pilar Requena, Óscar Martínez, Jesús Paris eta Stella Rodríguezek osatzen duten *lantaldearentzat, Mujeres de la Luz (Argiaren emakumeak)* erreportajeagatik, TVE La 2eko *En portada* programan emana 2013ko urriaren 31n. Programa Indiara joan da, Barefoot College GKEaren lana ezagutzera; emakume landatarrak trebatzen dituzte, eguzki-panel eta -baterien instalazioan, mantentze-lanetan eta konponketetan aditu izan daitezen eta, hala, beren etxeetara energia helaraz dezaten.

Internet-kategoriako aipamen berezia

Marta Palomo de Udaetaentzat izan da, *Cuerpos de impresión (Inpresio-gorputzak)* erreportajeagatik, www.agenciasinc.es webgunean argitaratua 2013ko apirilaren 4an. Zientzialariak etengabe ari dira esperimenduak egiten organoen eta ehunen hiru dimentsioko inprimagailuekin; adibidez, Oxfordeko

Unibertsitatean, benetako ehun baten gisa jokatzen duen material bat inprimatzea lortu dute.

TECNALIA KAZETARITZA SARIA

Tecnalia Korporazio Teknologikoak (AZTI-Tecnaliak, NEIKER-Tecnaliak eta TECNALIA Research & Innovation-ek osatua) helburu honekin sustatzen du kazetaritza-saria: iritzi publikoan ikerketa, berrikuntza eta garapen teknologikoaren ezagutza sustatzen eta dibulгатzen duten eta, hala, gizarte berritzaileago bat eraikitzen laguntzen duten hedabideetako profesionalen lana aintzatestea eta saritzea.